



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

## 2023KO AZAROAREN 28AN UDALBATZA PLENOAK EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

### 9. BILKURA

Azkoitia Hiri Prestu eta Leialeko udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko azaroaren 28an, arratsaldeko seiretan elkartu da Udalbatza Osoa, lehenengo deialdian. Ohiko bilkura honetarako deialdia behar bezala egin da eta eguneko aztergai zerrendan jarri diren gaiak aztertu eta ebatzi dira.

Ana Azkoitia Urteaga andrea (EAJ-PNV) izan da batzarburua, honako zinegotziak bertaratu direlarik:

Sonia Vazquez Tejerina. (EAJ-PNV).  
Imanol Arrizabalaga Larrañaga J. (EAJ-PNV).  
Igor Isusquiza García J. (EAJ-PNV).  
Marijose Arregi Etxeberria A. (EAJ-PNV).  
Mertxe Zubillaga Albizu A. (EAJ-PNV).  
Asier Altuna Epelde J. (EH BILDU).  
Iraitz Otaño Mujika J. (EH BILDU).  
Ainara Goenaga Andueza A. (EH BILDU).  
Itziar Larrañaga Arrizabalaga A. (EH BILDU).  
Jon Bastarrika Salegi J. (EH BILDU).  
Nagore Orbea Sánchez A. (EH BILDU).  
Jose Joakin Etxaniz Peña J. (AZKOITIA BAI-ELKARREKIN).  
Nerea Machado Iparraguirre A. (AZKOITIA BAI-ELKARREKIN).  
Janire Astigarraga Larrañaga A. (AZKOITIA BAI-ELKARREKIN).  
Janire Igoa Merino A. (PSE-EE).

Ezin etorriak:  
Juan Bautista Mendizabal Juaristi J. (EAJ-PNV).

Idazkaria: Unai Urkijo Rodriguez, Udal Idazkaria.

### **1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA, HALA BADAGOKIO.**

2023ko urriaren 25eko bilkurako akta aurkeztu da, eta honakoa da bozketaren emaitza:

**Aldeko botoak:** Ana Azkoitia Urteaga, Sonia Vazquez Tejerina, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Marijose Arregi Etxeberria, Mertxe Zubillaga



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Albizu, Asier Altuna Epelde, Iraitz Otaño Mujika, Itziar Larrañaga Arrizabalaga, Jon Bastarrika Salegi, Nagore Orbea Sanchez, Jose Joakin Etxaniz Peña, Nerea Machado Iparraguirre, eta Janire Igoa Merino.

**Abstentzioak:** Igor Isusquiza García, Juan Bautista Mendizabal, Ainara Goenaga Andueza eta Janire Astigarraga Larrañaga.

Beraz, Udalbatza Osoak 2023ko urriaren 25ean egindako bilkuraren akta onartzea gehiengoz erabaki du.

**2.- KREDITU TRANSFERENTZIA BIDEZ KREDITUAK ALDATZEKO 7 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEAREN ONESPENA.**

Honakoa da Alkatetzaren proposamena:

**“ANTOLAKUNTZA BATZORDEAREN DIKTAMENA**

**1.- AURREKARIAK**

2023urteko Udal honen Aurrekontuaren barnean gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu transferentzia bidez kredituak aldatzeko izapidetzen den espedientea aztertu dugu.

Antolakuntza batzordeko Lehendakariak egindako proposamena eta txostenak, ziurtagiriak eta agiri horren gainerako jarduerak aztertu ondoren, kontuan hartuz adierazitako aldaketa aurrekontuaren garapena arintzeko mesedegarria izango dela eta expediente horren izapideketa aplikagarriak zaizkion legeri egokitzen zaiela.

Honez gain, kontu-hartzaileak honako txosten hau egin du Aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzkoa

**TXOSTENA**

**KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA**

**KREDITU TRANSFERENTZIA 7/2023**

**AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN  
HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA**

**ARAUDI APLIKAGARRIA:**

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- 13/2014 Foru Araua, azaroaren 17koa, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa
- 3/2022 Foru Dekretu-Araua, azaroaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateek aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan 2023an aplikatu beharreko arau fiskalak eteteari buruzkoa (2022ko azaroaren 11an argitaratua)

**AZTERTUTAKO TRAMITEA: KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA**

**1.- FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)**

**1.1- ENTITATE ZERRENDA:**

AZKOITIKO UDALA  
SAN JOSE EGOITZA  
ZUBIAURRE ELKARGUNE INSTITUTOA

**1.2- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA**

**Aurrekontuen egonkortasuna**

Aurrekontu onarpenaren espedienteak - **-6.850.924,49** euroko defizita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetak sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetak gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

Ondorio horretarako, pasa den urtean egiten zen moduan, doiketa adierazgarria egin beharra dago, aurretik onarturiko kreditu aldaketak 2022ko Udaleko eta bere erakunde autonomoen diruzaintzako gerakinarekin finantziatu baita aurretiazko txertaketak egiteko eta beste kreditu gehigarri batzuk finantzatzeko.

Ondoren taula batean zehazten dira gerakinaren finantziazioa.

<b>KREDITU ALDAKETAK</b>	<b>Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2022ko gerakina</b>
Kreditu txertaketa 1/2023	1.715.499,84
Kreditu txertaketa 2/2023	555.297,09
Kreditu txertaketa 1/2023 ELKARGUNE	42.800,00
<b>Kreditu gehigarria 1/2023 ELKARGUNE</b>	<b>100.000,00</b>

ESKU06d7dc02-cf4c-43fb-aa78-e73cde502037



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Kreditu gehigarria 1/2023	2.541.964,47
Kreditu txertaketa 3/2023	1.086.279,67
Kreditu gehigarria 2/2023	370.438,86
Kreditu gehigarria 3/2023	245.000,00
Kreditu gehigarria 4/2023	108.000,00
Kreditu gehigarria 2/2023 ELKARGUNE	34.000,00
Kreditu gehigarria 5/2023	158.000,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>6.957.279,93</b>

Honegatik doiketa 6.957.279,93 €koa da eta ondorioz **espedienteak 103.355,44 euroko superabita** du. Kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetak sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetak gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta

3/2022 Foru dekretu arauak ezohiko izaeraz 2023rako arau fiskalak eten ditu. Ondorioz aurrekontuaren egonkortasunaren helbururik ez da bete behar 2023an.

Hala ere foru dekretu arau honen 1.4 atalak dio hurrengo artikuluan araututako defizit helburuak gaudituz gero, toki entitateak behartuta egongo direla plan ekonomiko finantzario bat egitea eta onartzera, plan hori kudeaketa tresna eta epe luzerako planifikazio tresna izan dadin, baina haren betetze mailagatik neurri gehigarriak hartzeko obligaziorik izan gabe.

Aurrekontu egonkortasuneko helburuak 2023rako zehazterakoan Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei lagako die berari esleitutako defizit helburuaren %40. Ondorioz Azkoitiko Udalarentzat defizit globaleko helburua hauxe da:  
Azkoitiko Udalaren kasuan 172.527€ da defizit muga, 2.2 artikulua arabera

Hori dela eta, Udalaren Aurrekontuaren aldaketaren espedienteak, kreditu transferentziak 7/2023, 3/2022 foru dekretu arauak ezartzen duen defizit helburuaren azpitik dagoenez, Azkoitiko Udala ez da behartuta egongo plan ekonomiko finantzario bat egitea. Hala ere, plan ekonomiko finantzarioa egiteko betebeharra dagoen ala ez jakiteko, defizit helburua likidazioaren unean aztertuko da.

### Finantzen iraunkortasuna

2023ko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 4.297.157,77€, 2022an likidatutako sarrera arrunten (**16.833.433,29€**) % 25,52 izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko, 2022ko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2023rako aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2023rako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartzen UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak baina atal honetan ez da doiketarik egin.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

3/2022 Foru dekretu arauak 2023rako arau fiskalak eten ditu. Ondorioz zor publikoaren helbururik ez da bete behar 2023an.

Hala ere esan behar da 2020ko helburua %70a izan zela eta Azkoitiko Udala eta bere erakunde autonomoen kasuan, 2023an, zor publikoaren portzentajea dezente azpitik dagoela, % 25,52 a.

#### Gastuaren araua

	2023	2022
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	24.669.649,00	18.923.345,99
Zorraren interesak:	150.742,77	26.933,78
SEC doikuntzak:		
Admin.publikoen ekarpen finalistekin finantzatutako gastua:	664.671,00	941.474,94
<b>Gastu konputagarria:</b>	<b>23.854.235,23</b>	<b>17.954.907,27</b>
Gastu konputagarriaren hazkundera	32,85%	

Gastu arauaren azterketa egiterakoan, simulazio bat besterik ez da egin, 2020ko erreferentziak kontuan hartuz. 2023rako ez dago ez hazkunderaren erreferentziatarik, ezta gastu konputagarria kalkulatu beharrik. Gastu araua etenda dago baita ere 3/2022 foru Dekretu arauaren arabera.

### 1.3.- ONDORIOAK

3/2022 foru dekretu arauaren ondorioz etenda gelditu dira txostenean aztertu ditudan hiru arau fiskalak.

Esan behar da egonkortasun helburuari dagokionez, Kreditu aldaketa honek, behin gerakinaren doiketa eginda, SUPERABIT egoera helarazten duela 106.355,44 €takoa, ETA KONTUAN HARTU BEHAR DA defizit kopuru hau Gipuzkoako Foru Aldundiak Azkoitiko Udalari lagatzen dion defizit mugaren azpitik dagoela, 172.527 € baita Azkoitiari dagokiona, 2.2 artikulua arabera.

Une batean Udalak defizit helburua gaindituz gero, behartuta egongo da plan ekonomiko finantzario bat egin eta onartzera, plan hori kudeaketa tresna eta epe luzerako planifikazio tresna izan dadin, baina haren betetze mailagatik neurri gehigarriak hartzeko obligaziorik izan gabe.

Honez gain 3/2022 Foru dekretu arauaren 1.2 artikulua arabera diruzaintzako gerakina erabili daiteke kreditu aldaketak finantzatzeko, arau fiskalak eteteak berekin bait dakar, eten egingo dela sarrera handiagoak eta diruzaintzako gerakina zorra murriztera bideratzeko eskakizuna.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Azkoitian, 2023ko azaroak 16an  
Kontuhartzaileak

Beraz, antolakuntza batzordeak ondorengo irizpena proposatzen dio Udalbatzari.

**IRIZPENA**

**LEHENENGO:** Proposamenean zerrendatzen diren Azkoitia Udalaren gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu transferentzia 7/2023 bidez egin beharreko kreditu aldaketarako expedientea onestea, 53.800,00 € zenbatekoa.

PARTIDA PRESUPUEST.	DENOMINACIÓN/IZENA	Haserako kreditua	Jeitsiera	behin betiko Kredituak
1000.121.920.00.01	Udalek funtzion baliz.ord	65.000,00	53.800,00	11.200,00
<b>GUZTIRA KAP 1</b>		<b>65.000,00</b>	<b>53.800,00</b>	<b>11.200,00</b>
	<b>GUZTIRA</b>	<b>65.000,00</b>	<b>53.800,00</b>	<b>11.200,00</b>
<b>PARTIDAS DE GASTOS CUYOS CRÉDITOS SE INCREMENTAN (ALTAS)</b>				
PARTIDA PRESUPUEST.	DENOMINACIÓN/IZENA	Haserako kreditua	Gehikuntzak	behin betiko Kredituak
2000.643.151.00.01	Hainbat proiektu	60.000,00	50.000,00	110.000,00
3100.625.332.10.01 2023	LIBURUTEGIRAKO LIBURU EROSKETA	10.000,00	3.800,00	13.800,00
<b>GUZTIRA KAP 6</b>		<b>70.000,00</b>	<b>53.800,00</b>	<b>123.800,00</b>

**BIGARRENA:** Espediente hori onartzea Udalbatzari dagokio, eta ez dira berari ezartzen Aurrekontu Orokorrari ezartzen zaizkion informazio tramitea, erreklamazioak, publizitatea eta besteak.

Antolakuntza Batzordeak, 2023ko azaroaren 22an egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

**ALDEKO BOTOAK:** Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Juan Bautista Mendizabal, Iraitz Otaño, Itziar Larrañaga, Jose Joakin Etxaniz, Janire Astigarraga eta Janire Igoa.

Alkate andreak azaldu du Kreditu Transferentzia honen bitartez 53.800,00€ko kreditu aldaketa egitea planteatzen dela. Alde batetik; 50.000,00€ko diru ekarpena hainbat proiektu partidarako, eta beste aldetik; 3.800,00€ko diru ekarpen Udal liburutegirako liburu berriak erosteko.

ESKU06d7dc02-cf4c-43fb-aa78-e73cde502037



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Jose Joakin Etxaniz jaunak hitza hartu eta adierazi du Azkoitia Bai ados dagoela aurkeztutako kreditu aldaketekin.

Bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Ana Azkoitia Urteaga, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Marijose Arregi Etxeberria, Igor Isusquiza García, Mertxe Zubillaga Albizu, Asier Altuna Epelde, Ainara Goenaga Andueza, Iraitz Otaño Mujika, Itziar Larrañaga Arrizabalaga, Jon Bastarrika Salegi, Nagore Orbea Sanchez, Jose Joakin Etxaniz Peña, Nerea Machado Iparragirre, Janire Astigarraga Larrañaga eta Janire Igoa Merino.

Beraz, Udalbatza Osoak kreditu transferentzia bidez kredituak aldatzeko 7 zenbakidun espedientea hasieraz onartzea aho batez erabaki du.

**3.- AZKOITIKO UDAL LARRIALDIETARAKO PLANAREN ZUZENKETAREN ONESPENA.**

Honakoa da Alkatetzaren proposamena:

**“LURRALDE ANTOLAKUNTZA, INGURUMENA, LANDA GARAPENA, OBRAK ETA  
ZERBITZUETAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN IRIZPENA**

**GAIA: UDAL LARRIALDEETARAKO PLANAREN ALDAKETARI HASIERAKO ONESPENA  
EMATEA**

2016ko apirilaren 18an Teknimap enpresak Udal Larrialdietarako Plana aurkeztu zuen Udal Erregistro Orokorrean (1776 sarrera-erregistro zk). Bi dokumentu aurkeztu zituen, bata euskaraz eta bestea gazteleraz. Hala nola, hari atxiki zitzaion, bestalde, CD bat

2017ko azaroaren 29an honakoa adostu zuen Azkoitiko Udaleko osoko bilkurak:



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**LEHENA.-** Azkoitiko **Udal Larrialdietarako Plana** hasieraz onartzea.

**BIGARRENA.-** 7/1985 Legeak, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituena, 49. artikuluan ezarritakoari jarraiki, **espedientea jendaurrean jartzea hogeita hamar (30) egun balioduneko epean** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkeztu ahal ditzaten.

Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki-taulan, Azkoitiko Udaleko webgunean eta Gipuzkoa Irekian argitaratzea.

Informazio publikoko epea iragan eta inolako erreklamaziorik ez balitz aurkeztuko, plana behin betikotzat onartua emango da. Alegazioak aurkezten badira, horiek ebatzi eta Udalbatza Plenoak behin betiko testua onartu beharko luke.

**HIRUGARRENA.-** Behin plana onesten denean, Autonomia Erkidegoko Babes Zibileko Batzorde Autonomoari bidaltzea hura homologatzeko.

Erabaki hau argitaratu zen 2017ko abenduaren 5ean, eta alegaziorik egon ez zela eta 2018ko urtarrilaren 25ean behin betiko onetsitatzat geratzen dela dioen iragarkia argitaratu zen.

Ondoren, 2019ko urriaren 30eko Udalbatzan, legealdi berriaren hasierarekin batera, aipaturiko emergentzia planaren 1. edizioa onartzea adostu zen.

Aurtengoan, legealdi berriaren hasierarekin batera, Udal Bulego tekniko honek egokituriko 2. edizioa prestatu berri du.

Hona hemen dokumentuaren helburu nagusiak:



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- *Udal-eremuan larrialdietan eskuhartzeko antolamendu-egitura eta jardunbideak eratzea. Beraz, berehalako laguntza emateko udal-taldeen antolamendua aurreikustea; talde horietan boluntarioak sartzerik izango da.*
- *Udal-eremuan autobabesa sustatzea eta bultzatzea.*
- *Udalerriko arriskuak eta elementu ahulak identifikatzea eta aztertzea.*
- *Prebentzio-neurriak zehaztea antzemandako arriskuak saihesteko edo gutxitzeko.*
- *Arriskuei, prebentzio eta hartu beharreko babes-neurriei buruzko argibideak ematea biztanleei eta kontzientziaraztea.*
- *EAEko Herri Babeseko Lurralde Planarekin batasun batean antolatzeko sistemak ezartzea eta goragoko mailako planak zuzendu eta koordinatzen dituzten zentroekin lotzeko sistemak ezartzea.*

Legegintzaldi aldaketa dela eta desfasatuta geratu dira hainbat izen eta telefono eta hortaz, aldaketa horiek egitea komeni da. Egokitzapen horiek egitea da erabaki honen helburua.

Udal Arkitektoaren txostenak besteak beste honakoa dio:

*1/2017 Legegintzako Dekretuak, apirilaren 27koak, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duenak 13. artikuluan xedatzen du Udalaren eskuduntza, besteak beste:*

**13. artikulua.– Udalerriak.**

*1.– Udalerriek babes zibila ematen parte hartuko dute, haien eskumen-eremuan eta lege honen printzipioak errespetatuz. Honako hauek dagozkie:*

*a) Babes zibileko udal-egituraren eraketa bultzatzea.*

***b) Babes zibileko udal plana egin eta onartzea.***

*c) Babes zibilerako garrantzitsuak diren datuak biltzea eta jakitera ematea.*

*d) Babes zibileko udal planeko baliabide mugigarrien katalogoa egitea.*



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

e) Aurreikuspen eta prebentzioko udal-programak egitea eta betearaztea, beste administrazioen programek adierazten dutenaren ildotik. Horretarako, biztanleria kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeko kanpainak, autobabes-neurrien hedapena eta babes zibileko praktikak eta simulakroak egingo dira.

f) Udal-mugartean boluntarioen erakundeen eraketa bultzatzea.

2.– Lege honetan eta toki-araubidearen legerian ezartzen denaren arabera, udalei dagokie suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuak sortzea, antolatzea eta mantentzea.

3.– Alkatea da udaleko babes zibilaren agintari gorena. Kapitulu honetako 3. artikuluan tipifikatutako larrialdiren bat gertatzen denean udal-mugartean, udal-agintaritzak hartuko du bere gain sorospeneke eta laguntzako zerbitzuen zuzendaritza eta koordinazioa, eta egoeraren informazio zehatza emango dio berehala Eusko Jaurlaritzan segurtasun publikoaren arloko eskumena duen saileko organo eskudunari, Larrialdiak Koordinatzeko Zentroaren bitartez.

4.– Lurralde historikoek eta Eusko Jaurlaritzak babes zibileko udal-egituraren antolaketan lagundu eta egitura hori sustatuko dute, toki-autonomia errespetatuz.

Era berean, Dekretu horren 30. artikuluan xedatzen da onespren prozedura zein izango den:

30. artikulua.– Bestelako lurralde-planak.

1.– Autonomia Erkidegoaren eremuz azpiko lurralde-planak udal- edo foru-mailakoak izan daitezke, eta helburu hauek izango dituzte:

- a) Plangintzaren xede den lurraldeko arriskuak eta elementu kalte berak identifikatzea.
- b) Aplikatu daitezkeen prebentzio-neurriak zehaztea.
- c) Biztanleria arriskuez eta prebentzio-neurriez informatzeko eta kontzientziatzeko plangintza egitea.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

d) Plana egiten duen administrazioaren babes zibilaren antolaketa itxuratzea; horretarako, baliabide mugigarrien katalogoa edukiko du planak.

2.– Plan horien egitura eta edukia Babes Zibileko Euskadiko Planak ezartzen dituen ildoetara egokituko dira.

**3.– Plan horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Babes Zibilerako Batzordera bidali beharko dira, homologatzeko. Hau egingo da homologazioan: planak Babes Zibileko Euskadiko Planera egokitzen diren egiaztatu. Gehienez hiru hilabete egongo dira homologatzeko.**

4.– Homologatzen ez diren lurralde-planak aldatu egin beharko dira homologatzea eragozten duten arazoak kontuan harturik, eta, antzemandako akatsak zuzentzen ez diren bitartean, lurralde-plan zabalagoa izango da aplikagarri.

Horrenbestez, teknikari honen aburuz, ez dago Azkoitiko Udalerriko Udal Larrialdi planaren, 2. Edizioa - 2023ko Urrikoa, onartzeko arazorik, betiere 1/2017 Legegintzako Dekretuak, apirilaren 27koak, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duenak xedatutako prozeduraren arabera.

Ikusita, aldaketak soilik dagokiola Legegintzaldi aldaketak eta denbora igarotzeak ekarri dituen pertsonen karguen aldaketei, hau da, kargu ezberdinetan dauden pertsonen izen eta telefonoen aldaketei, ez da beharrezkotzat jotzen, aurrez jarraitutako prozedura guztia jarraitzea eta nahikotzat jotzen da zuzenketa izapidetzea

Beraz, osoko bilkurari proposatzen zaio:

**LEHENA.-** Azkoitiko **Udal Larrialdietarako Planaren zuzenketa** onartzea, zeinak jasotzen dituen behin betikoz 2018an onartutako Larrialdi Planari egindako zuzenketak **(2. Edizioa- 2023ko Urrikoa)**.

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Azkoitiko Udaleko webgunean eta Gipuzkoa Irekian



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**HIRUGARRENA.-** Autonomia Erkidegoko Babes Zibileko Batzorde Autonomoari bidaltzea hura homologatzeko.

Lurraldea Batzordeak, 2023ko azaroaren 16an egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

**ALDEKO BOTOAK:**

Aho batez:

- Imanol Arrizabalaga Larrañaga
- Ana Azkoitia Urteaga
- Juan Bautista Mendizabal Juaristi
- Janire Igoa Merino
- Iraitz Otaño Mujika
- Jon Bastarrika Salegi
- Jose Joakin Etxaniz Peña
- Nerea Machado Iparragirre.”

Alkate andreak gogorarazi du 2019ko urriaren 30eko Udalbatzan, legealdi berriaren hasierarekin batera, Azkoitiko Udal Larrialdietarako emergentzia planaren 1. edizioa onartzea adostu zela. Azpimarratu nahi izan du Plana eguneratuta izatearen garrantzia, emergentzia egoera suertatuz gero nola jokatu behar den zehaztuta izateko eta zeinekin harremanetan jarri behar den jakiteko. Horrenbestez eta kontuan izanda aurtengo maiatzean udal hauteskundeak izan direla, Udal Bulego teknikoak 2. edizioa prestatu berri du.

Jose Joakin Etxaniz jaunak hitza hartu eta Udal Emergentzia Plana eguneratuta izatearen garrantzia azpimarratu nahi izan du ere, pertsona ugarien arteko lan eta kolaborazioa eskatzen baitu.

Bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Ana Azkoitia Urteaga, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Marijose Arregi Etxeberria, Igor Isusquiza García, Mertxe Zubillaga Albizu, Asier Altuna Epelde, Ainara Goenaga Andueza, Iraitz Otaño Mujika, Itziar Larrañaga Arrizabalaga, Jon Bastarrika Salegi, Nagore Orbea Sanchez, Jose Joakin Etxaniz Peña, Nerea



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Machado Iparragirre, Janire Astigarraga Larrañaga eta Janire Igoa Merino.

Beraz, Udalbatza Osoak Azkoitiko Udal Larrialdietarako Planaren zuzenketa onartzea aho batez erabaki du.

#### **4.- PSE-EE UDAL TALDEAK KLIMA BABESLEKUEN ETA ESPAZIO PUBLIKOEN BIRNATURALIZAZIOAREN INGURUAN AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

Alkate andreak hitza eman dio Janire Igoa andreari PSE-EE Udal taldeak aurkeztutako mozioa irakurtzeko. Hori horrela Janirek honako mozioa irakurri du:

##### **“KLIMA BABESLEKUEN ETA ESPAZIO PUBLIKOEN BIRNATURALIZAZIOAREN MOZIOA**

Gure Autonomia Erkidegoak, Euskadik, egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egin behar die eta erronka horietako handiena klima-aldaketa da, eragin globala eta handiena duelako.

Klima aldaketak hainbat inpaktu eragin ditu gure planetan eta bero-boladak gero eta gogorragoak eta ohikoagoak eragiten dituen ondorio kezagarri ugarietako bat da.

Uda honetan, gure lurraldea astindu duten bero-bolada gogorren lekuko izan gara, eta ezin dugu ahaztu muturreko gertaera horiek klima-aldaketarekin lotuta daudela.

Zientzialariek hamarkadak daramatzate klima-aldaketan fokua jartzen eta klima-aldaketak gure egunerokoan eragiten dituen inpaktuen maiztasuna eta eraginean arreta jartzen.

Horren adibide garbia da Euskadik, azken bero-bolada horretan, 1981ean baino bero-erregistro historiko handiagoa izan zuela, eta abuztu erdialdean inoizko egunik beroena izan genuen: 45 gradu inguruko tenperaturak erregistratu ziren Euskadiko hainbat tokitan.

Euskadi izan da tenperatura altuengatik alerta gorria ezarri duen autonomia-erkidego bakarra, eta aurreikuspenak aise gainditu dira.

Bizkaian, 43,7 gradu Derion, Galdakaon, 43 gradu. Araban, 44,6 gradu Laudion, 42,2 Amurrian, 40,6 Zanbranan eta 40,4 gradu Gasteizen.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Era beran, Gipuzkoan, udalerrri gehienak ez dira 40 gradura iritsi, Elgoibar, Arrasate eta Beasain izan ezik, horiek gainditu egin baitituzte.

Tenperatura horiek direla eta, Euskadin 48 pertsonari eman zaie arreta tenperatura altuengatik (30 pertsona Bizkaian, 14 Araban eta 4 Gipuzkoan).

Segidako bero-boladek deigarriak izan behar dira gure lurraldean eta udalerrietan klima-aldaketara egokitzeko neurriak abian jartzeko, gure biodibertsitatea ezagutzen dugun moduan zaindu eta kontserbatzeko, gure herritarren eta gure ekonomiaren osasuna zaindu eta babesteko.

Erronka handia izateaz gain, klima-aldaketaren aurkako borrokak eta horretara egokitzeak udalerrri erresiliente eta osasungarriak sortzeko aukera gisa balio behar digute.

#### **Horregatik guztiagatik, Azkoitiko udalari eskatzen zaio**

- 1.- Udalerrriko azpiegitura berdeari buruzko azterlan bat egitea eta udalerrriko gune grisenetan birnaturalizazioa sustatzea.
- 2.- Tenperatura optimoa bermatuko duten eta bero-boladen garaien aterpe klimatiko gisa erabil daitezkeen kanpoko zein barruko espazioak kokatzea.
- 3.- Herri berdatzea sustatzea, zuhaitzik edo eguzki-babesik ez dagoen lekuetan eta eremu gris gehiegi dauden lekuetan, klima-aldaketara eta gure herritarren osasuna babestera egokitzeko neurri gisa.
- 4.- Eskola-jolastokiak leku inklusiboagoak, jasangarriagoak eta naturalizatuago bihurtzeko eraldaketa balioestea.”

Jose Joakin Etxaniz jaunak hitza eskatu ondoren azpimarratu du Azkoitia Baiko kideei eraginkorrago iruditzen zaiela honako proposamenak hurrengo urterako aurrekontuei begira egitea, hortaz, adierazpenarekiko kontrako botoa iragarri du.

Asier Altuna jaunak adierazi du EH Bildu bat datorrela mozioan aipatutako puntuekin, hortaz, EH Bilduko batzarkideen aldeko botoa iragarri du. Hala ere nabarmendu nahi izan du PSE-EEK Gipuzkoako Foru Aldundian duen Ingurumen Saitetik igorritako mozioa iruditzen zaiola. Horregatik kontraesankorra iruditzen zaio PSE-EEK horrelako mozioak aurkeztea, zeren eta erraustegiak erabiltzearen aldeko politikak sustatzen ditu.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Amaitzeko aipatu du Azkarateko proiektua aurkeztu zenean PSE-EEko Batzar Nagusietako kide batek bai ala bai eraikiko zela adierazi zuela. Horregatik, gaia berriz ere lantzen hasterakoan Azkoitiko PSE-EEren jarrerari eta hartzen dituen konpromisoei erreparatuko dietela aitortu du.

Marijose Arregi andreak hitza hartu eta adierazi du PSE-EEK aurkeztutako proposamenak herriarentzat positiboak izan daitezkeela, beraz, EAJK mozioaren alde bozkatuko duela iragarri du.

Bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Ana Azkoitia Urteaga, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Marijose Arregi Etxeberria, Igor Isusquiza García, Mertxe Zubillaga Albizu, Asier Altuna Epelde, Ainara Goenaga Andueza, Iraitz Otaño Mujika, Itziar Larrañaga Arrizabalaga, Jon Bastarrika Salegi, Nagore Orbea Sanchez eta Janire Igoa Merino.

**Kontrako botoak:** Jose Joakin Etxaniz Peña, Nerea Machado Iparragirre eta Janire Astigarraga Larrañaga.

Beraz, Udalbatza Osoak PSE-EE udal taldeak klima babeslekuen eta espazio publikoen birnaturalizazioaren inguruan aurkeztutako mozioa onartzea gehiengoz erabaki du.

**5.- EAJ-PNV ETA PSE-EE UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO EUSKAL ZAINZTA EREDU SENDO, ERALDATZAILE, FEMINISTA ETA KOMUNITARIO BATEN ALDEKO MOZIOA.**

Honakoa da aurkeztutako mozioa:

**“Euskal zaintza eredu sendo, eraldatzaile,  
feminista eta komunitario baten aldeko mozioaren**

Historian lehen aldiz, joan den urriaren 29an Zaintzaren eta Laguntzaren Nazioarteko Eguna ospatu zen, eta testuinguru horretan, ekimen asko antolatu dira Euskadin zaintza-eredu berri bat aldarrikatzeko. Osasun sistemaren eta euskal gizarte zerbitzuen kalitatea eta sendotasuna funtsezkoak izan dira Covid 19aren pandemiaren aurkako



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

borrokan: eta, orain, itun sozial eta politiko berri bat adosteko garaia da, gure zaintza eredua lidergo eta erantzukizun publikoan oinarrituta eraldatzen jarraitzeko, sektorearekin, eragile nagusiekin eta inplikaturako gizarte erakundeekin lankidetzan. Era berean, gizarte gisa, generoan oinarritutako rolak eta estereotipoak hautsiko dituen eredu-aldaketaren alde egin behar dugu.

Gaur egun, Gipuzkoan, lau pertsonatik batek (%22,9) 65 urte edo gehiago ditu. Gipuzkoako biztanleriaren zahartzea da gaur egungo erronka nagusietako bat, eta hortik eratortzen da zahartze aktibo eta osasungarria sustatzeko beharra, baita estrategiak garatzeko ere, adineko pertsonak pairatzen dituzten mendekotasun eta bazterkeria egoeren gorakadaren aurrean.

Testuinguru horretan, azkoitiarrok eragile konprometituak izan behar dugu printzipio komunitarioetan oinarritutako balio-gizarte baterantz joateko, eta modu aktiboan parte hartu behar dugu zaintza-eredu erreferentzial bat eraldatzen eta martxan jartzen, zaintza eskubide unibertsala eta, pertsona, gizarte-ongizateko eredu berriaren ardatz nagusia izango dena.

Horregatik guztiagatik, Azkoitiko Udalak Euskadiko zainketen aldeko itun sozial berriaren parte hartzeko proposamena aurkezten dugu: zaintza-sistema sendo, eraldatzaile, komunitario eta feminista defendatzeko. Horretarako, ardatz estrategiko hauek garatzeko konpromisoa hartzen dugu:

1. **Pertsona, zainketa-eredu berriaren ardatza.** Arreta pertsonalizatua, unibertsala eta kalitatekoa izateko eskubide subjektiboa bermatzea.
2. **Zainketen profesionalizazioa.** Zaintza-modu formal eta informaletan diharduten langileen lan-baldintzak sendotzea eta hobetzea, elkarrizketa sozialaren bidez eta laguntza-sistema indartuz.
3. **Etxeko zaintza lehenesten duen sistema.** Adineko hamar pertsonatik zortzik etxean bizitzen jarraitu nahi dute. Horregatik, genero ikuspegia alde batera utzi gabe, etxeko zainketak hobetzea eta berrikuntza txertatzea beharrezkoa da, zaintza profesionalizatuz, familia-zaintzaileari lagunduz eta komunitatearen parte-hartzea indartuz.
4. **Sistema justu eta berdinzalea.** Zaintzaren arduraren emakumeek izan dute historikoki eta, horregatik uste dugu, beharrezkoa dela, feminismo konprometitan eta berdintasunezkoan oinarrituta, zaintzetan emakumeen eta gizonen erantzukidetasuna txertatuko duen gizarte-eredua aldatzearen alde lan egitea, ikuspegi interseksionala hartuta.
5. **Koordinazio soziosanitario areagotzea.** Gizarte eta osasun sistemen arteko lankidetzaren handiagoa eta hobeagoa izan behar da, erabiltzaileek arreta integrala jaso dezaten euskal administrazioaren aldetik, mendekotasuna, dibertsitate funtzionala, gaixotasun mentalen bat edota gizarte bazterkeriako egoeraren bat izan.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

6. **Komunitatea indartzea.** Giza garapen iraunkorreko gune gisa komunitate-loturak indartzea, gizarte-kohesioa eta zaintzarekin konprometitutako erakunde, elkarte eta pertsonen parte-hartzea areagotuz.
7. **Zaintzen iraunkortasuna eta kalitatea bermatzea.** Eraginkorragoak izanda kudeaketa hobetzea, horretarako baliabide ekonomiko berriak aztertuz eta egungo zaintza-ereduaren bideragarritasuna eta etorkizuneko ongizatea bermatuko duten neurri fiskal berriak hartuz, belaunaldien arteko konpromiso berrituarekin.
8. **Zaintzen elkarlaneko gobernantza.** Zaintza publiko eta komunitarioko eredu bidezkoago, berdintasunezkoago eta erantzunkideago baten alde egiteak berekin dakar elkarlaneko gobernantzako mekanismo berriak antolatzea: publiko-pribatua, publiko-publikoa, publiko-komunitarioa.”

Sonia Vazquez andrea hasi da mozioa irakurtzen eta Janire Igoa andreak amaitu du.

Jose Joakin Etxaniz jaunak hitza eskatu eta adierazi nahi izan du zaintza negozio batean bilakatu dela. Gogorarazi nahi izan du orain pare bat urte etorkin batek esandakoa: *“gure herrian nahi adina ume izan ezker ere, ez da inoiz zaintzeko arazorik egon, denon artean zaintzen ditugu, komunitateak du horren ardura, baina hemen ez da horrela gertatzen, bakoitzak bereak zaindu behar ditu.”*

Hori horrela izanda azpimarratu du gaur egungo kapitalismoak jendarteko sareak erabat apurtzen dituela, bakoitzak bere zilborrari baino ez baitio begiratzen. Horren adibide da azaroak 30erako deitutako greba, ziur baitago asko izango direla greba eguna aprobeztatuko dutenak San Andres jaiaz gozatzeko.

Amaitzeko adierazi du Azkoitia Baiko kideak ez direla inoiz izan adierazpen eta mozioen aldekoak, hala ere eta kontuan izanda proposatutako mozio honetan lantzen den gaiaren garrantzia, ez zaie bidezkoa iruditzen gai honi buruzko adierazpenak helaraztea. Batik bat zaintzan aritzen diren eskubidea iruditzen zaielako.

Aurrekoagatik mozio honen aurka bozkatuko dutela iragarri du.

Asier Altuna jaunak aipatu du mozioaren puntu guztiak irakurrita onartu daitekeen mozioa iruditzen zaiola, baina uste du kontraesan handia dagoela mozioan islatutakoaren eta praktikan ematen denaren artean. Horren erakusle azkeneko urteetan gauzatzen ari diren Eusko Jaurlaritzaren politika sozialak eta horien pribatizazioa.

Azaldutakoagatik mozioaren kontra bozkatuko dutela iragarri du.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Ana Azkoitia Urteaga, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Marijose Arregi Etxeberria, Igor Isusquiza García, Mertxe Zubillaga Albizu, eta Janire Igoa Merino.

**Kontrako botoak:** Asier Altuna Epelde, Ainara Goenaga Andueza, Iraitz Otaño Mujika, Itziar Larrañaga Arrizabalaga, Jon Bastarrika Salegi, Nagore Orbea Sanchez, Jose Joakin Etxaniz Peña, Nerea Machado Iparragirre eta Janire Astigarraga Larrañaga.

Beraz, Udalbatza Osoak EAJ-PNV eta PSE-EE udal taldeek aurkeztutako Euskal zaintza eredu sendo, eraldatzaile, feminista eta komunitario baten aldeko mozioa **EZ ONARTZEA** erabaki du.

## **6.- EAJ-PNV ETA PSE-EE UDAL TALDEEK EUSKARAREN EGUNAREN INGURUAN AURKEZTUTAKO ADIERAZPENA.**

Alkate andreak adierazi nahi izan du EH Bilduk eta Azkoitia Baik, EAJ eta PSE-EEK aurkeztutako mozioari osoko emakida aurkeztu diotela. Hori dela eta azaldu du lehenik eta behin EAJk eta PSE-EEK batera aurkeztutako mozioa irakurri eta bozkatuko dutela, ondoren, EH Bilduk eta Azkoitia Baik aurkeztutako mozioa irakurtzeko eta bozkatzeko.

Honakoa da EAJ-PNV eta PSE-EE udal taldeek aurkeztutako mozioa:

### **“Euskal hiztunon ahotsa, euskararen zabalbide Euskal hiztuna, euskararen zabalkunde digitalaren eragile Nagusia**

Gure alde, euskararen alde alegia, inork egin dezakeenaz galdetu ohi dugu sarri euskal hiztunok, bereziki Euskararen Nazioarteko Egunaren inguruko gogoetan. Ezin uka, jakina, egin beharreko galdera eta gogoeta dela, baina ez litzateke inola ere zilegi, are gutxiago baliagarria, ikuspegi horretara mugatzea euskararen aldeko jarduera.

Garrantzi betekoak izaten jarraitzen dute, ezinbestekoak, euskararen erabileraren aldeko ekimen kolektibo presentzialek, jendetsuek, kale girokoek; ezinbestekoak diren bezala euskara ardatz duen elebitasun orekatua gauzatzen jarraitzeko lankidetzeta pribatu-publiko harmonikotik datozen ekimen eraginkorrak oro.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Baina digitalizazio aurreratuaren garai honetan, adimen artifiziala makulu ezezik kultur, komunikazio eta gizarte garapenaren bektore nagusi bilakatzen ari zaigunean, erronka berri bat iritsi da gure komunitatera.

Algoritmoak ausazkotasunarekin lotzen ditugu sarritan eta adimen artifiziala gure kontrol eremutik at dagoen esparru batekin. Baina teknologia aurreratu guzti honen muinean, gizakiak etengabe elikatutako tripak daude. Makinen autonomia gero eta handiagoa izanik ere, autonomia hori era batera edo bestera elikatu eta bideratu daiteke. Bada, elikatze horretan dugu euskaldunok etorkizun hurbilerako erronka, bai erakundeen aldetik baita norbanakoen aldetik ere.

Sortuko diren tresna, aplikazio, gailu...berriek gure hiztun komunitatearen eta gure euskararen muina behar dute erraietan. Horretarako, ahotsa, hizkera, hizkuntza ezagutza, aldaera, estiloa, berezitasuna, esakera edo idazkera etorkizuneko tresnen elikagai bilakatu behar ditugu.

Euskararen zabalkunderako aro digital berria hasi da, inplikazio pertsonalaren bidez eta komunitate gisa jarduteko unea iritsi da. Har dezagun geure esku bereziki adimen artifizialaren bidetik datozkigun lanabesak euskaraz funtzionatzeko bidean tinko jartzeko ardura, erakutsi diezaiozun euskaraz lan egiten geure eguneroko jardueran ezinbesteko lankide dugun tresneria digitalari.

Oparo bueltatuko ditu-eta gure oraingo ahaleginaren mozkina, modu ezin praktikoagoan bueltatu ere: euskarazko datu-base sendo bat sortuta, euskaraz zuzeneko sarbidea izango du sare teknologiko nagusien zirkuituetan, eta, horren eskutik, eguneroko eta helburu ugaritako aplikazioetan.

Ez da amets bat, hil edo biziki eginkizuna baizik euskararen garabideari begira eta, batez ere, digitalizazioaren unibertso ekidinezinean gure hizkuntzak atzerapausorik gabe aurrera egin ahal izan dezan.

Beste hainbat urrats egin ditu euskarak digitalizazioaren eremuan oraingo honen aurretik ere, esate baterako, itzultzaile neuronalaren, itzulpen automatikoaren, ahots sintesiaren eta transkripzioaren alorrean eman diren urratsak.

Hortxe beraz, bidea: erabil ditzagun gure alde, euskararen zabalkundearen alde, teknologia kolaboratiboak, izugarria izango dugu ahaleginaren ordaina, guztiz aldekoa eta, batez ere, atzeraezina.

Euskal hiztunon komunitateak zor dio bere buruari ahalduntzerako bide honetan urrats erabakigarriak egitea, digitalizazioak sortutako beharrak asetzea, kasu.

Eta ireki diezaiozun ahalegin honen atea, baita ere, euskarara hurbiltzen ari diren herritar guztiei, euskal herritarron komunitate eleaniztunak elkartasunez, harrotasunez eta kontzientzia betean bizi dezan euskararen aurrerabide digitala.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Eman diezaiogun ahotsa euskarari, mundua euskaraz izendatzen jarraitu ahal izan dezagun. Euskarari zor diogu. Geure buruari zor diogu.”

Honakoa da EH Bilduk eta Azkoitia Baik aurkeztutako adierazpena:

**“EH bildu eta Azkoitia Bai udal taldeek euskaren nazioarteko egunerako EAJ-PNV eta PSE-EE udal taldeek aurkezturiko adierazpenaren gaineko osoko zuzenketa**

Euskaldunak gara, euskaraz gara, eta hori da gure herrien nortasunaren ezaugarri esanguratsuenetakoa: udalerrri euskaldunak gara. Mendeetan zehar gure hizkuntza zamatu duten debeku, eraso, jazarpen eta erabakien gainetik, aurten bertan ezagutu ditugun datuen argi diote: oraindik ere gure herritarren gehiengoa euskalduna da, beste inon baino sendoago dago gurean euskara, eta udalerrri euskalduna gero eta gehiago dira. Gurean ere asko aldatzen ari da errealitatea, ordea, eta egiteko konplexuak dauzkagu aurretik; hala ere askoren artean urte askoan egindako lanaren uzta ageriko da: ezagutzak gora egin du, gero eta euskaldun gehiago gara, eta horrek ekarri du udalerrri euskaldunen lurgunea handitzea, besteak beste.

Euskararen Nazioarteko Eguna, urtero, zer garen gogoratzeko eguna izan ohi da. Herri honek munduari ematen dion kolorea euskara dela esateko eguna. Harrokeriarik gabeko harrotasun eguna. Ospakizuna. Aurten, ordea, lanbrotuta ditugu bazterrak. Hilabetez hilabete ainubera kondenatu nahi izan gaituzte. Behin eta berriro. Euskararen aurkako erasoek ez dute etenik izan, eta epaitegietatik heldu den oldarraldiak marra gorriak gaintitu ditu, euskararen beraren ofizialtasuna ere zalantzan jartzearaino.

Euskal jendarteak eta euskal erakundeek urte askoan kontsentsu zabalarekin egindako bidea mugatu nahi izan dute. Udalerrri euskaldunek bertako hizkuntza biziberritzeko eta euskara dagokion lekura itzularazteko egiten ditugun urratsak debekatu nahi dizkigute. Gazteleraren makulupean ibiltzera eta bigarren mailakoak izatera behartu nahi gaituzte. Baina euskara da gure herriko hizkuntza propioa, eta hori sustatzen jarraitzeko beharra daukagu udalerrri euskaldunek.

Izan ere, erakundeei eredu izatea dagokigu. Herritarren eredu. Ahalegin eta konpromiso handiari esker, larreako nahi zuten hizkuntza noranahikoa izatea lortu du herri honek, eta ezin dugu zabaldutako bidean atzera egin. Berdatzen hasitako basoa berriro lehortzea onartu. Horregatik, udalerrri euskalduna garen heinean, adierazpen honekin bi konpromiso ezagutarazi nahi ditugu. Batetik, euskararen biziberritzean eta herritarren hizkuntza eskubideen defentsan eredu eta bide-urratzaile izateko konpromisoa. Bestetik, euskarak ezinbestekoa duen lege-babesa lortzeko lanean gainerako erakundeen eta eragileen bidelagun izateko konpromisoa.

Gaur egungo atakari aurre egiteko benetako lege-orubea behar baitu euskarak, erdaren erauntsiari aurre egiteko egiturazko neurri sendoak behar dituen bezala.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Dagokigun arduratik, horiek lortzeko lanerako eta elkarlanerako ordua dugu orain erakundeok, inoiz baino gehiago. Euskararen lurgunea handitu dela esateaz gain, euskararen lurgunea sendotu ere egin dela ikus dezagun hurrengo urtean. Izan gaitezen eredu. Lehenetsi etorkizuna. Erakutsi eguzkia ainubean denari. Eman diezaiegun euskara eta bidea herritarrei.

Eta bide horiek zabaltzeko, gailu berriei eta adimen artifizialari euskaraz irakasteko, euskara mahaiak antolatuta, abenduak 4an egingo den ekimenean parte hartzera animatu nahi genuke herritar oro.

Horretaz gain, dei egiten diegu herriko eragile zein norbanakori datorren abenduaren 14ean ospatuko den Azkoitiko Udalaren Osoko Bilkuran parte hartzera. Bilkura horretan, Azkoitia Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartzea erabakiko dugulako.”

Jose Joakin Etxaniz jaunak mozioa irakurri ondoren komentatu du, aurreko puntuan bozkatutako zaintzaren mozioaren aurretik aztertu eta adostu zutela, beraz, emandako hitza mantenduz, osoko emakidaren alde bozkatuko dutela iragarri du.

Alkate andreak esan du aurkeztutako bi mozioak onartzeko modukoak iruditzen zaizkiola, batez ere EH Bilduk eta Azkoitia Baik proposatutakoa UEMA-k igorritakoa delako eta EAJ-k hori babestuko duelako. Bestalde, komentatu nahi izan du Azkoitiko Udalak beti Euskararen aldeko adierazpen instituzionala onartu ohi duela Euskara eguna baino lehenago.

Jose Joakin Etxaniz jaunak adierazi nahi izan du Tokiko Gobernu Batzordean UEMA-ko mozioa hortxe zegoela komentatu zela eta bere ustez, EAJ-k horren alde egingo zuela.

Alkate andreak adierazi dio EAJ-rekin inor ez dela kontaktuan jarri UEMA-ko mozioa aztertzeko eta horregatik beste mozioa sartu zutela.

Asier Altuna jaunak adierazi nahi izan du ez zaiola komenigarri iruditzen Euskara konfrontazio politikorako erabiltzea. Gogorarazi nahi izan du uztailean Euskararen alde egindako mozioan Udal talde politiko guztien babesarekin onartu zela, baina kasu honetan ikusi zutenean EAJk eta PSE-EEK aurkeztutako mozioa, EH Bilduk eta Azkoitia Baik UEMA-ko adierazpena aurkeztea erabaki zuten landuagoa iruditzen zitzaielako.

Bozkatzera pasatu aurretik Iraitz Otaño jaunak hitza eskatu du eta adierazi du lehenik eta behin Osoko zuzenketa bozkatu beharko litzatekeela.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Idazkariak Iraitz Otaño jaunak adierazitakoa baieztatu du eta EH Bilduk eta Azkoitia Baik aurkeztutako osoko zuzenketa lehenik bozkatzea adostu dute.

Osoko zuzenketa onartu denez, jatorrizko mozioa ez onartzea erabaki dute, hortaz, EH Bilduk eta Azkoitia Baik aurkeztutako adierazpena onartu egin da.

Bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Ana Azkoitia Urteaga, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Marijose Arregi Etxeberria, Igor Isusquiza García, Mertxe Zubillaga Albizu, Asier Altuna Epelde, Ainara Goenaga Andueza, Iraitz Otaño Mujika, Itziar Larrañaga Arrizabalaga, Jon Bastarrika Salegi, Nagore Orbea Sanchez, Jose Joakin Etxaniz Peña, Nerea Machado Iparragirre eta Janire Astigarraga Larrañaga.

**Kontrako botoak:** Janire Igoa Merino.

Beraz, Udalbatza Osoak EH Bildu eta Azkoitia Bai udal taldeek euskararen nazioarteko egunerako aurkeztutako adierazpenaren osoko zuzenketa onartzea gehiengoz erabaki du.

## **7.- BEHIN BETIKO ONESPENEN BERRI EMATEA.**

Alkate andreak honako behin betiko onespene berri eman du:

“2023ko irailaren 27an Udalbatzak onartuta eta alegaziorik egon ez denez behin betikoz onartua:

- Zubiaurre-Elkargune Institutuko kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko 2 zenbakidun espedientea.

2023ko urriaren 25ean Udalbatzak onartuta eta alegaziorik egon ez denez behin betikoz onartua:

- Kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko 5 zenbakidun espedientea.



2023ko Udaleko Aurrekontua Gauzatzeko Udal Arauaren aldaketa.”

## 7.- AURREKONTUARI BURUZKO INFORMAZIOA.

	<b>Behin bet. aurr.</b> <i>Pres. def.</i>	<b>Baimendua</b> <i>Autorizado</i>	<b>Erabilia</b> <i>Dispuesto</i>	<b>Onart. oblig.</b> <i>Contraído</i>	<b>Ordainketa</b> <i>Pagado</i>
Oraingo ekitaldia/Ej. corriente GASTUAK	25.110.404,44	19.080.268,43	18.209.271,47	15.894.969,78	15.894.969,78
	<b>Behin bet. aurr.</b> <i>Pres. Def.</i>	<b>Onar. esk. Garb</b> <i>Dchos. Recs..</i>	<b>Bildut-garbia</b> <i>Recaudado</i>	<b>Kobr. Dagoena</b> <i>Pte. cobro</i>	<b>Itzulketak</b> <i>Devoluciones</i>
Oraingo ekitaldia/Ej. Corriente SARRERAK	25.110.404,44	15.738.085,64	14.602.505,04	1.135.580,60	63.447,94

## 8.- GALDE-ERREGUAK.

Ez da galde-erregurik aurkeztu.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, Alkate andreak bilkurari amaiera eman dio, arratsaldeko zazpiak hogeita bost minutu gutxi direnean eta nik, Idazkariak, akta hau jaso dut, Agirien Liburura transkribatuko delarik.

**ALKATEA**

**IDAZKARIAK**



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2023PLEN0019-AKTA/ACTA (AZKOITIKO UDALA)